

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko ekainak 2 · 1273 zenbakia

KRUTWIG BERRIRAKURTZEN HERRIRA ZABALTZEKO



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA



ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea



KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizenziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlarzia
 - Udala



LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordainutako enplegatuaren erreklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen erakuntza



24 ORDUKO ZERBITZUA
Zure eskura jartzen dugu zure komunitateari dagokion informazio guztia urteko egun guztietako 24 orduan

30 URTETIK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09-14:00 eta 15:30-19:30



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**GASTESI
Hortz-Klinika**
Errebal, 9-1.c
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
Oñateko etxea
- INHIBITERRIA
- KIBEL LENTAK
- Puntak eta TRATAMENAK
- K. nerbioak + DESPESKIBIA
ARRAGUSTA, 20
Tel: 948 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

arat.
Hortz Klinika - Clínica Dental

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**



Forobide Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratzklinika.com



IRAZABAL
clínica dental

**Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK.**

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tinea, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

Dra. Laura Martínez  *Dr. Alejandro Recas*

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgaitardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizenziatua
693.319

San Agustín Kalea, 4 beheko eskuerra
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 527 075 - 688 864 808
info@eibarclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702888



Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz klinika - Clínica dental
Fermín Calbetón 19-3 esk. EIBAR
943 20 72 17 - 680 422 808
@oyudent



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Stai Zittok bere azken kontzertua eskainiko du bihar, iluntzean, Ermuko plazan. Taldea orain dela 10 urte osatu zen eta lagun artean amaituko du ibilbidea. Xabi Martin eibartarrak biharko zita nola biziko duen esan digu eta 10 urte hauetako errepasoa egin dugu berarekin.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Nire aita biologikoa imaginatzerakoan, hogeitaz urteren bueltan dabilen bat irudikatzen dut, garagardo batzuk hartzeko dirutxo bat behar zuena. Eta nire onetik ateratzen nau arduragabekeri absolutu horrekin mundura umeak ekartzea. Berarentzat inolako ondoriorik ez, guztiak nik neuk jan behar! Nire seme-alaben pediatriak galdetzen badit nire familian gaixotasun espezifiko baten aurrekariarik badugun, zer esango diot?

MARINA SELES, aita biologikoen anonimotasun aurkakoa

Espainiako alderdi neoliberalak bi korrante nagusi ditu: Alderdi Turistikoa eta Alderdi Inmobiliarioa. Gure enpleguetako asko, zuzenean edo zeharka, turismoaren eraginetik datoz. Eta, propietate bat erosten dugunean, guraso edo aitita izateari lagatzen diogu, berehala jabe bihurtuz; horrela, gure ondorengoek gugatik jasoko dutenaren ardurahori baztertzen dugu. Azken batean, desberdintasuna sortzen duen eta lurra deuseztatzen duen ereduaren konplize bihurtzen gara.

JORGE DIONI, entsegu-egilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORAIN → Orbana. Gaztelerazko 'lunar'. "Bere arpegi ederrian orain bat eban hain egoki jarririta eze, bere edertasunari grazia bat gehitzen zetsan".

ORAIÑENGO → Orain hurrengo, azkenengoz. "Oraiñengo kalian ikusi nebanetik asko maxkaldu da".

ORAIÑEL → Gaztelerazko 'orinal'. "Oraiñeletik kanpora diharduzu".

1975

Ikastolaren aldeko jaialdia

Plazaolaren argazki hau Aste-lena frontoian ateratakoa da, Eibarko ikastolari laguntzeko 1975ko apirilaren 12an egin zen musika jaialdian. Lehen planoan gitarrarekin dagoena Vicente Ramirez da.



Farmaziak

BARIXAKUA 2
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 5
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUAZTENA 7
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 8
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 9
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Liberato Larreina Larrauri**. 98 urte. 2023-05-24.
- **Carlos Arrazola Galan**. 84 urte. 2023-05-25.
- **Rodrigo Miguel Navamuel**. 89 urte. 2023-05-26.
- **Francisco Iriarte Arriola**. 94 urte. 2023-05-27.
- **Maribel Leibar Aizpuru**. 78 urte. 2023-05-29.
- **Kontxi Txurruka Uzuriaga**. 91 urte. 2023-05-31.
- **Angel Ramos Arto**. 99 urte. 2023-05-31.

Jaiotakoak

- **Ayoub Boutahar**. 2023-05-21.



Udako bigarren eskuko azoka egingo da bihar goizean Errebal Plazan

Biharko azokan zerbait saldu nahi dutenek bi modutara izango dute horretarako aukera: alde zurretik eskaera egin dutenek postu edo mahai bat izango dute, bakoitzak saldu nahi duena bertan eskaintzeko. Eta, bestela, erabilitako objektuak gordailu-zerbitzuan laga ahal izango dira (gehienez ere 10 pertsona bakoitzeko eta egoera onean). Kasu horretan antolatzaileak arduratuko dira gauzak saltzeaz eta,

azoka ixtean, 14:00etan, saltzaileak bertara itzuli beharko dira, salmentaren dirua edo saldu ez diren artikulua jasotzera.

Bestalde, azoka uda partean egingo denez, antolatzaileek lehenetsia emango diete urtaro horrekin eta oporrekin zerikusia duten objektuei: "Besteak beste, kirolerako, bidaietarako eta hondartzarako artikulua eta liburuak, eta musika zein zinema-artikulua ipiniko

Bihar goizean egingo da Udalak antolatutako bigarren eskuko azoka. Ekainean egingo den lehen aldia izango da, eta Errebal Plazia aukeratu dute horretarako. Goizeko 10:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da. Azokarekin batera, haurrentzako tailerra ere antolatu dute, birziklatutako materialekin ziba bat egiteko.

dira salgai. Beraz, postuak adjudikatzean, lehenetsia emango zaiei baldintza hori betetzen dutenei".

Tronpa bat egiteko tailerra haurrentzat

Azokan bertan haurrentzako tailer bat ere egingo da, material birziklatuekin txiba edo tronpa egiteko: "Tailerra 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat izango da, baina 5 urtetik beherakoek heldu batekin egon beharko dute. Hormirudi bat ere egingo da, ekainaren 5ean osatzen den Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta". Tailerra 11:30ean hasi eta 14:00ak aldera amaituko da.

• tartak
• enkarguak
• etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



XIII. GALDARAMIÑO IGOERA 2023

11 ekaina
junio

9:30 a.m.

18 km 900 +

Eibar
Urki
INSKRIPZIOAK
kirolprobak.com

ATZEGI

Eibarre Kiak Degetildea
www.mendilasterketa.blogspot.com

Queen taldearen omenezko kontzertua Urkiko jaietan

Urkiko jaiak antolatzeko ardura duten auzokideek iaz aurreratu zuten bezala, aurtengo egitaraua askoz xumeagoa da, aurreko urteetan prestatzen zituzten programekin alderatuz gero. Izan ere, aspalditik ari ziren esaten antolaketa-lanetan laguntzeko erreleborik ez zegoela eta, gauzak horrela, zaturako prestatu dituzten jarduerekin ospatuko dituzte jaiak oraingoan, bihar goizetik hasita: 11:00etan hasiko da X. Txiki-krosa, Urki Kurutzekuan, eta 12:00etan XXIII. Paella Lehiaketa, Nuevo tabernaren atzealdean. Arratsaldeko 18:00etatik 21:00eta-

ra Irulitxa txarangakoak ibiliko dira, kalejiran. Eta gauean Capitan Mercury kontzertua emango du, Queen taldearen musika oinarritzat duen ikuskizuna eskaintzeko. Rioja eta Bodega tabernen aldamenean izango da, 23:30etik aurrera.

Galdaramiñora igoera eta Atzegiren martxa ekainaren 11n

Bestalde, jaien barruan egin ohi den Galdaramiñora igoera datorren asteburuko domekan, ekainaren 11n egingo da. Irteera Urki auzoan izango da, 09:30ean, eta ibilbideak 18 kilometroko luzeera

eta 900 metroko desnibela dauka. Guztira lau mendi igarotzen dira; Galdaramiño (669 m), Azkonabitz (726 m), Topinburu (590 m) eta Ilordo (541 m). Antolatzaileek diotenez, “parte-hartzaileek oinez zein antxintxika burutu dezakete, eta indarrak berreskuratzeko bost hornidura-postu izango dituzte. Helmugan kamiseta bana oparituko zaie guztiei, eta sari banaketa ere izango da”. Izen-ematea kirolprobak.com webgunean edo egunean bertan egin daiteke. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, “Galdaramiñoren bihotza Atzegikoak dira, adimen desgaitasuna dutenei laguntzen dieten taldekoak. Bi ibilbide ezberdin burutzen dituzte, bakoitzaren ezaugarrien arabera. Horrela, denon artean, kirol egoitua bultzatzen dugu”.

kili & klik
argazkilaritza fotografia

646114443 · kili klik

kilimaksortzen@gmail.com · Indalecio Ojanguren 1

Eibarko **aek** euskaltegia

B1, B2 eta C1 (EGA) mailako ikastaroak (ekaina, uztaila, iraila)

AUTOIKASKUNTZA IKASTAROAK (erdi presentzialak) uztaletik irailera

2023-24 ikasturterako

AURREMATRIKULA ZABALIKI!

Sostoa 1, 1. solairua
943 201 379 eibar@aek.eus
www.aek.eus/aurrematrikula



Atxilotuta besaulki bat leihotik behera bota eta oinezko bat larriki zauritzeagatik

Ertzaintzak 21 urteko gaztea atxilotu zuen astelehen goizean, zuhurtziagabekeria larriagatik lesioak eragitea leporatuta. Antza denez, atxilotuak sofa moduko bat bota zuen eraikin bateko leihotik behera, eta une horretan kaletik zihoan gizon baten gainera jausi zen, zauri larriak eraginean. 64 urteko eibar-tarra Donostia Ospitalera eraman zuten, egoera larrian. Ezbeharra goizeko 09:00ak aldera gertatu zen, Ubitxan. Larrialdietako telefonora egindako dei baten bidez jakin zu-

ten kalean pertsona bat konortea galduta zegoela. Bertara joan eta ertzainek pertsona bat zaurituta zegoela egiaztatu zuten. Ertzaintzaren arabera, ustez besaulki batek jo zuen zauritua, eta ailegatu zirenerako norbaitek zabor-eremu bateraino mugituta aurkitu zuten. Ertzaintzak egindako ikerketari esker jakin zuten gizon batek eraikin bateko hirugarren solairutik bota zuela besaulkia, eta ustezko inplikaturia identifikatu ondoren atxilotuta eraman zuten.

Hamalau lagun ari dira fabrikazio mekanikoari eta soldadurari buruzko enplegu programan parte hartzen

Hamalau lagun ari dira parte hartzen Udalak eta Armeria Eskolaren Elkartek lankidetzan antolatutako fabrikazio mekanikoari eta soldadurari buruzko enplegu-sustapeneko programan. Programa apirilaren 17an hasi zen, mekanizazio-gaitasunei buruzko prestakuntza-fasearekin, eta, horren ondoen, beste fase hauek izango ditu: eskorgak

gibatzea, soldadura, garapen pertsonala eta praktikak enpresetan.

Bestalde, Udala, Lanbiderekin elkarlanean, ildo bi izango dituen kontratazio-plana prestatzen ari da, udaletxean lan egiteko eta udaletxerik onduko kontratuak diruz laguntzeko; eta, horretarako, 250.000 euroko partida izango du.



Autobus geltokiaren lanek eragindako aldaketak bertan behera geratuko dira astelehenean

Ego Gainen, autobus-geltokia berurbanizatzeko lanen ondorioz autobus-geraleku batzuetan egindako aldaketak bertan behera geratuko dira astelehenetik aurrera, Udaletik jakinarazi dutenez. Horrela, astelehenetik aurrera honako linea hauek berriz ere Ego Gainetik irten eta bertara sartuko dira: Eibar-Arrasate-Gasteiz, Eibar-Gasteiz (urtegitik), Eibar-Arrasate, eta Eibar-Bergara-Arrasate-Eskoriatza.



Ekainaren 10ean Untzagan ehuntzeko gonbidapena

Kalean Ehuntzeko Munduko Eguna dela-eta, ekainaren 10ean Untzaga plazan elkartzeko deia egin dute Altzoa elkarteak, 10:00etatik 13:00era bertan puntua egitera joateko. *Kaleak gureak dira* goiburuari jarraituta egingo den ekimena beste herri batzuetan ere egingo da, eta helburua indarkeria matxistarekin amaitzea da.



25. Kirola Euskaraz Bizi ospatuko da bihar

Ikasturte amaiera gerturatzeko doan honetan, J.A. Mogel Ikastolak urteroko egun handiaren bezperatan dugu. Horretarako, bihar goizeko 08:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte luzatuko den egitaraua prestatu dute. Autobusak goizetik abiatuko dira, ohiko geltokietatik: 08:00etan 5. eta 6. mailako ikasleekin, 8:30ean 3. eta 4. mailakoekin, 09:00etan 1. eta 2. mailakoekin eta 09:30etik aurrera gurasoekin. Bestalde, 10:15etik aurrera egingo den desfilea baino lehen futbola, saski-

baloia, boleibola, eskalada, eskubaloia, sokasaltoa, txapak eta jockeya izango dira egingo diren modalitateak. Desfilearen ondoren, aurreko modalitate batzuei gurasoen parte-hartzea gehituko zaie, sokatira, txingak eta kaskara batzarekin batera. Goizeko jardunari amaiera eman eta, bazkaldu aurretik, abiadura, erreleboak eta krosa proba egingo dira. Ondoren, 15:00etan Adolfo Jainagaren emanaldia izango da, 15:30ean apar-festa eta 16:00etan dominak banatuko dira.

Irratsaio berezia antolatu dute Artxiboen Nazioarteko Egunerako

Ekainaren 9an, Artxiboen Nazioarteko Eguna dela eta, Udal Artxiboak Eibarko lehen irratsaioaren 70. urteurrena ospatzeko gonbidapen zabala egin nahi die eibartar gutzietei. Egun horretan saio berezia egingo dute, Artxiboaren instalazioetatik bertatik, 12:00etatik 14:00etara, eta nahi dutenek publiko gisa parte hartzeko aukera izango dute. Artxiboko ardura-dunen berbetan, "Eibarren jarri zen lehenengo irrati-instalazioaren hasierak gogoratuko ditugu, gure argazkietako baten historia sinestezina ezagutuko dugu, Mirreia Alonsorekin antzinako sukaldaritzaren errezetei buruz hitz egingo dugu, eta Udal Artxiboaren eguneroko bizitzan zer egiten dugun kontatuko dizuegu".

Parte hartzeko 943708422 telefono zenbakira deitu edo, bestela, artxibo@eibar.eus edo kontsultaartxiboa@eibar.eus helbidera mezua idatzi behar da, "irratia-radio" adieraziz. Plaza kopurua mugatua da.



Estibaliz Urresola Solaguren zinemagileari buruzko bideo-foruma astelehenean

Pagatxa emakumeen elkarteak Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzan antolatutako zine-forum saioa egingo da gaur arratsaldean, 18:30ean Portaleko areto nagusian. Catherine Corsini zuzendariaren *Un amor de verano* filma ikusi eta, jarraian, solasaldia hasiko da, Izaskun Rodriguez Elkororen gidaritzapean.

Eta, astelehenean, *Emakumeak historia egiten* bideo-forum saioa

egingo da, 18:30ean Andretxean (Isasi, 11). Saio horretako protagonista Estibaliz Urresola Solaguren zinemagilea izango da. Aurten Berlinaleko lehiaketa ofizialean estreinatu zuen *20.000 erle espezie* fikziozko bere lehen film luzea izan da, baina, aurretik ere, 2011. urteaz gozotik, hainbat film labur idatzi, zuzendu eta ekoitzi ditu Urresolak. Beti bezala, sarrera librekoa izango da egun bietan.

PSE-EEK irabazi du Eibarren, baina zinegotzi bat gutxiago izango du



Domekan egin ziren Udal eta Foru Hauteskundeetan PSE-EE alderdia izan da garaile Eibarren, boto kopuruari begiratzen badiogu: 4.474 botorekin, alderdi bozkatuena izan da. EH-Bilduk 3.301 boto lortu ditu, EAJ-PNVk 3.161 eta Elkarrekin Podemosek 663. Horiek izango dira datorren legegintzaldiari begira Eibarko Udalean ordezkatura egongo diren alderdiak, PP berriz kanpoan geratu da-eta, nahiz eta 479 boto jaso. Ekainaren 17an osatuko dira Udalak, Eibarren bezala gainontzeko udalerrietan ere, eta udalbatzar horretan hautatuko dute alkatea.

Hauteskunde egunaren kronika bideoan




Lau urteko legegintzaldia amaitu ondoren, aldaketa bakarra izan da gure herriko alderdiek lortutako zinegotzi kopuruari dagokionez: PSE-EEK orain arte zuen bederatzigarrena galdu du, EH Bilduren mesedetan, azken honek bost zinegotzitik seira jauzi eginez. Hala ere, PSE-EE nagusitu da berriro ere, zortzi zinegotzirekin, eta EH Bilduk aurrea hartu dio EAJ-PNV-ri botoetan, biek sei zinegotzirekin berdindu arren. Elkarrekin Podemosek azken lau urteotako zinegotzi bakarrari eutsi dio. Boto-kopuruari dagokionez, PSE-EEK orain dela lau urte baino 1.130 gutxiago jaso ditu; hala ere, erraz nagusitu da, EH Bildu bigarrenari 1.173 botoen aldea aterata. Ezker abertzaleak 123 boto gutxiago izan ditu orain dela lau urtekoarekin alderatuz gero, eta EAJ-PNVk, berriz, 541 boto galdu ditu 2019tik hona. Elkarrekin Podemosek 324 boto galdu ditu ordukoarekin alderatuta eta PP izan da bakarra 2019an ateratako boto

kopurua hobetzen, 18 boto gehiago lortu ditu eta. Hala ere, aurrekoan bezala, ez du zinegotzirik lortu.

Ia alderdi guztiek 2019an baino boto gutxiago izatearen arrazoia bi puntu garrantzitsutan nabari dezakegu. Alde batetik, orduko zentsoa 21.214 biztanlekoa bazen, oraingo honetan 660 gutxiago izan ditu, 20.554an geratzeko. Eta, horrez gain, ezin dugu ahaztu orduko parte-hartzea %67,72koa izan zenean, oraingo honetan %60,43an geratu dela, hau da, zazpi puntu eta erdi txikiagoa. Bestalde, auzoko botoei begira, PSE-EE auzo guztietan nagusitu da, Errebalgo hauteslekuan kenduta: hor, gutxigatik bada ere, EAJ-PNV alderdiak jaso du boto gehien. Eta EH Bildu bigarren izan da beste hauteslekuetan, Urkizun izan ezik. Azkenik, eta kuriositate bezala, oraingo honetan 12 emakume eta 9 gizonek osatuko dute udal korporazioa.

Bestalde, Eibarko Udaletik kanpora, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari izan lortu duen ei-



EHBilduko ordezkari eta lagunek Eibarren lortutako emaitza onak ospatu zituzten: Eibarren bigarren indarra izatera pasatu dira eta portzentaietan igo den alderdi bakarra da.



ek! ...eta kitto!
 HAUTESKUNDEAK
 2023-05-28
EIBARKO EMAITZAK

8 6 6 1

EHBILDU

...eta kitto!

bartar bakarra Alberto Albistegi (PSE-EE) izan da, Deba-Urola barrutian.

Hauteskundeetako ale berezia Interneten eskuragarri dago

Domekako hauteskundearen emaitzak Eibarren, auzorik auzoko datuekin, eta herriko ordezkari politikoaren balorazioak biltzen dituen ale berezia astelehen goizean banatu genuen herriko kiosko, okindegi, taberna eta beste toki publiko ba-

tzuetan, baina azaleko datu batean, 2019ko hauteskundeetan alderdi bakoitzak lortutako ordezkari-kopuruan, hankasartzea egin genuen paperezko edizioan, EAJ -PNV eta EH Bilduren zinegotzi-kopuruak nahastuta. Hauxe da emaitza zuzena: PSE-EE 9, EAJ-PNV 6, EH Bildu 5 eta Elkarrekin Podemos 1.

Paperezkoa zuzentzeko modurik ez genuen izan, baina etakitto.eus gure webgunean eskuragarri dago aldizkariaren PDF-a, zuzenduta.

Emaitzak Eibarren, auzorik auzoko datuekin, ale berezian bildu ditugu. PDF-a deskargatzeko eskaneatu QR-a



“Federico Krutwig mendebaldeko kulturaren pertsona osoa zen”

MANU ERTZILLA ETA OSKAR ARANTZABAL • Krutwigen Lagunak



Nabarralde Fundazioak Federico Krutwig Sagredoren bizitza, pentsaera eta lanak jasotzen dituen liburua argitaratu du. Krutwigen Lagunak elkarte edo kolektiboko 13 lagunek idatzi dute bertan, tartean Manu Ertzillak eta Oskar Arantzabal eibartarrak. Hain zuzen ere, bi hauek egongo dira datorren eguaztenean Kultun, 19:00etan, Krutwigen inguruko dokumentala eskaini eta bere inguruan berba egiteko.

BIDEOA



Idazlea, politikaria, poliglota eta poliedrikoa. Federico Krutwig Euskal Herriak XX. mendean izan duen pertsonaia nabarmenatariko bat da eta, hala ere, Ertzillak eta Arantzabalek dioten moduan, “45 urtez azpikoek ia ez dute ezagutzen”.

Ezagutzen ez dutenentzat, nor izan zen Federico Krutwig?

ERTZILLA: Krutwig Getxon jaio zen, 1921ean, familia erdi burges batean. Aita alemaniarra zen, I Mundu Gerran Koloniatik etorria. Bilbon finkatu zen eta makinariaren salerosketan ibili zen. Federicok Frantses Eskolan ikasi zuen lehenik, Aleman Eskolan gero eta, ondoren, Deustun ekonomia ikasi zuen. Umetatik pentsatu zuen bizitza laburra dela eta ikasi eta ikasi egin behar dela. Esaten zuen 10-12 ordu pasatzen zituela irakurtzen, baina aitari ez zitzaion gustatzen, nahiago zuen komertziantea izan zedin, eta aitak ikus ez zezan, ohepean sartzen zen irakurtzera.

ARANTZABAL: Bestetik, familiaren txoferra euskalduna zen eta hortik piztu zitzaion hizkuntza ikasteko grina. Euskaldun berria zen.

ERTZILLA: Erraztasun handia zuen hizkuntzetarako, baina erraztasuna izanagatik ere, bitxia zen edozein hizkuntzatan eginda ere, beti sintaxi berbera erabiltzen zuela. Nolabaiteko tranpa da hizkuntzak ikasteko. 23 urte ingururekin Azkuerekin egin zuen bat eta hori izan zen euskal mundura pasatzeko tranpolin handiena. Azkuek, hil baino lehen, enkargu bat laga zion: Euskaltzaindia antolatzea. Izan ere, gerraren ondorioz, euskaltzain asko kanpoan bizi ziren eta biltzarrak egiteko quoruma falta zen. Horretan ari zela, Luis Villasante sartu zuen Euskaltzaindian. Normalean, norbait sartzen denean, barruko batek hitzaldia egiten du eta sartzen denak berdin, eta Federicok eman zuen hitzaldia Bizkaiko Diputazioan. 1952. urtea zen. Hitzaldian elizaren kontra sartu zen euskararen aurka zihoalako eta abar, argumentu eklestastikoak erabiliz, eta zeharka, erregimenaren kontra ere sartu zen. Gauzak horrela, Hego Euskal Herritik alde egin behar izan zuen.

27 urterekin Euskaltzain izendatu zuten eta “euskara abarketatik atera” behar zela aipatu zuen. Zer esan nahi zuen horrekin?



Manu Ertzilla eta Oskar Arantzabal. EKHI BELAR

ARANTZABAL: Adibidez, kritikatzan zuten elizak ez zuela meza euskaraz ematen eta hori sinestunen aurkako zerbeit zela. Manuk ez du aipatu, baina behin galdetu zioten ea zenbat hizkuntza zekizkien, eta berak ere ez zekien kopurua zein zen. 15 edo 20 izan zitezkeen. Hizkuntza batzuk, sumeriera eta pertsiera klasikoa, adibidez, hilda zeuden eta, ez zuenez noekin praktikatu, ez zekien hizkuntza menperatzen zuen ala ez.

ERTZILLA: Galderari erantzunez, Federico mendebaldeko kulturaren pertsona osoa zen. Arteta margolariak aurpegi argalarekin eta abar margotzen zituen euskaldunak. “Hauek munstro batzuk dira”, zioen Krutwigek, “hauek margotzea ez da euskaldunen alde egitea, euskaldunak difamatzea baizik”. Bere ustez, euskalduna konturatu behar zen kultura bat behar zela eta horri bere hizkuntza eman behar zaiola. Eta hizkuntza eman behar zaionez gero, “hizkuntza nola dago?”, galdetzen zuen. Hasieran bizkaiera sabinistan idazten hasi zen arren, berehala konturatu zen ezin zela horrela idatzi, euskal literatur tradizioari jarraituz baizik. Hau da, lapurteraz. Lapurterak badu maila bat beste dialektok ez

duena eta, bere iritzi, hori hartu behar zen eta hortik hasi gauza guztiak egiten.

ARANTZABAL: Federico oso pertsona humanista zen. Errenazimenduko jakintsu horietako bat. Argazkilaritzan ere oso ona zen, baita margolari moduan ere. Orduan, konturatu zen Europako herri gehienek Errenazimendu kultural bat egin zutela. Alemaniako batasuna Luteroren Bibliari esker iritsi zen, eta berak eredu hori erabiltzen zuen: “Berdina egin beharko genuke herri kultura izateko”.

Manu, zuk euskara klasikoa lantzeko lantaldean parte hartu zenuen Federicorekin. Nolako jarduna izan zen?

ERTZILLA: Krutwigek ez zuen proposatzen orain Lizarragarengana bueltatu behar garenik. Ez. Lizarraga hartu eta aktualizatu egin behar zela baizik. Federicorentzat euskara batua eginda zegoen. Hartu hori, aktualizatu eta kitto. Baina bera kanpoan zegoen eta ezin izan zuen askorik egin Koldo Mitxelenaaren proposamenaren aurrean. Honek gipuzkera proposatu zuen euskara baturako. Gipuzkera eta lapurtera ez dira bi



“Krutwigen iritziz lapurtera hartu behar zen oinarritzat eta hortik hasi gauza guztiak egiten”

“Federico oso pertsona humanista zen. Errenazimenduko jakintsu horietako bat”

sintaxian badu bere pisua, batez ere literatura egiteko eta testu luzeak idazteko orduan. Klasikoek hori egina dute. Hau da, egina dute Errenazimenduan beste hizkuntzetan egin zen berbera. Hauek latina eta grekoa oinarri moduan hartu eta kopiatu egin zuten. Hain dira kopia, non frantsesak ez du behar latina zertan ikasi, txertatuta duelako, eta ingelesak eta alemanak berdin. Euskarak ez du hori eginda. Federicok ez zuen esaten, baina zera pentsatzen zuen: “Gure kalamitatea da ez garelara hortaz konturatzen”. Euskarak ez du hori guztia barruan sartuta. Alegia, Errenazimendutik honakoa, mundu modernoa, euskarak ez du egin, euskaldunek ez dute hizkuntzan txertatu, eta besteek bai. Beraz, 400 urteko desfasea dago hor.

Desfase hori ezin da salbatu?

ERTZILLA: Bai, baldin eta hortaz konturatzen bagara. Hedabideen kasuan, adibidez, ingelesa edo frantsesa hartuz gero, 12.000 berba inguru erabiltzen dutela ikusi daiteke. Euskarazkoek, oster, 500 inguru. Eta ez gara hortaz konturatzen?

ARANTZABAL: Wittgenstein filosofoak zioen bezala: “Nire hizkuntzaren mugak nire munduaren mugak dira”. Horrek erakusten dizu noraino iritsi zaitezkeen zure hizkuntzarekin. Egia da herri honetan txikitasun konplexu handiak ditugula. Euskarak demaseko potentzialitatea du. Sustraiak aztertuz gero, filosofian adibidez, aukera izugarriak daudela ikusiko dituzu. Beste gauza bat da ez ditugula ezagutzen. Orduan, Krutwigek zioen hizkuntzaren maila jasotzea izango litzatekeela modu bat geure burua munduan duintasunez ibiltzeko.

ERTZILLA: Bestetik, Federicok ‘kolonizatuaren sindromea’ aipatzen zuen. Euskalduna kolonizatuta dago, espainolaz batez ere. Kolonizazioak esan nahi du euskalduna atzeratu, anakroniko, entzefaloaren faltadun eta abar bezala tratatu dela, eta euskaldunak hori bereganatu eta naturalizatu egin du. Orain, euskalduna konkistadoreak sartu dion birusarekin konportatzen da.

ARANTZABAL: Eta gehiago esango dut. Orain dela 500 urte inguru, Espainia Ameriketara iritsi zenean, teologoen zuten zalantza handienetakoa zen erabakitzea Ameriketako indigenak pertsonak ziren ala ez.


Horrek inplikazio erlijiosoak zituen, zerura joateko ala ez. Gaur da eguna euskara Frantzian debekatuta dagoena. Beraz, iparraldeko euskaldunak bigarren mailako pertsonak dira. Hau da, 500 urte geroago zerbait aurreratu dugu, baina asko ez.

Krutwigen obraren mugarri bat ‘Vasconia. Estudio dialectico de una nacionalidad’ izan zen, non nazionalismoaren kontzeptio progresista berria landu zuen. Badu zerikusia aipatutako kolonizatuaren sindrome horrekin?

ARANTZABAL: Ordura arte Sabino Aranaren teoria gailentzen zen. Euskal Herri klasikoa, zazpi lurraldeekin, neurri handi batean arrazismoan oinarrituta. Sasoi horretan, mundu osoan zen normala arrazismoa. Federicok beste irakurketa bat egin zuen ikuspegi etniko batetik. Hizkuntzak ematen zion munduaren ikuskera. Mundua geure betaurrekoekin irakurtzen dugula planteatzen zuen eta hizkuntzak ematen dizkizu horretarako erremintak. Adibidez, ‘Lankide’ berbaren barruan enpresako zuzendaria, alboan duguna eta denak sartzen ditugu, eta horrek esplikatzeko du auzolanaren kontzeptua, kooperatibek hemen zergatik funtzionatzen duten eta beste toki batzuetan ez... Beste hizkuntza batzuetan hori ez duzu aurkitzen. Ingeles, frantses edo espainol batek ‘colega’ berba erabili dezake, baina ez da gauza bera. Horrek gure nortasuna ematen digu.

Oskar, zuk ‘Vasconia’ ekonomia politikoaren ikuspegi berrirakurri duzu liburuan. Zer ondorioztatu duzu?

ARANTZABAL: 60. hamarkadan Eskandinaviako sozialdemokrazia oso modan zegoen. Krutwigek zioen 3 edo 5 milioi biztanleko estatuek edo unitate sozioekonomikoek askoz ere hobeto funtzionatzen dutela besteek baino. Orain dela 10 urte, The Economist aldizkariak, oso liberala denak, munduko herrialdeen hurrenkera bat egin zuen eta Krutwigek esandakoa erakusten zuen. Beraz, denborak arrazoi eman dio Krutwigi. Ez da kasualitatea Eskozian eta Katalunian bizi ditugun prozesuak, tamaina horretako herrialdeak izanik.



“Egia da herri honetan txikitasun konplexu handiak ditugula. Euskarak demaseko potentzialitatea du”

“Krutwigek zioen 3 edo 5 milioi biztanleko estatuek askoz ere hobeto funtzionatzen dutela besteek baino”

JARRAITU IRAKURTZEN: WWW.ETAKITTO.EUS

Esperientzia Eskolaren 18. promozioak ikasturtea amaitu du

Debabarreneko Esperientzia Eskolak beste ikasturte bat amaitu du, 18.a hain zuzen ere. Aurtengoan 26 ikaslek hartu dute parte (iaz baino bat gehiago), 20 emakumek eta sei gizonek, eta Debabarreneko hainbat herritatik etortzeaz gain (Mallabia, Soraluze, Deba, Elgoibar eta Eibar), eskualdetik kanpoko ikasleek ere hartu dute parte (Ondarroa eta Elorrio).

Eva Perez de Albeniz Esperientzia Eskolako koordinatzaileak eta Jon Iraola Eibarko alkateak hartu zuten hitza joan den egunean Armeria Eskolan egin zen saioan, eta ekimenak duen balioa azpimarratu zuten. “Ondo inbertitutako dirua da”, aipatu zuten. “Gauzak ikasteko

interesa duten eskualdeko pertsonen erreferentziazko tokia da Esperientzia Eskola”, euren berbetan.

Horren lekuko dira Maite Larrañaga eta Joxean Egaña, 18. promozioako kideak. “Konfiantzazko gunea da eta taldeak kohesioa lortu du. Konfiantzaz gain, errespetua eta laguntasuna sustatu da





Joan den asteko eguenean banatu zituzten ikasturte amaierako diplomak. EKHI BELAR

ikasturtean zehar”, Larrañagaren berbetan.

Ikasturtean zehar gai asko lan-
du dituzte. “Batzuk kulturalakedo
filosofikoak izan dira, baina beste
batzuk askotan lantzen ez dire-
nak: sexualitatea, identitatea, emo-
zioak...”, aipatu zuen Larrañagak.
Bere iritziz, “atseginez ikasten de-
nean, adinak garrantzirik ez duela
ikusi dugu”. Egañaren esanetan,
“egunerokotasuneko pilotu auto-
matikoaz ahazteko balio izan digu”.

‘Marea gora’ proiektua

Taldeak beste urtebetez jarraitzeko
gogoia duela aipatu zuen Egañak
eta proiektu asko dituztela bu-
ruan. Horietako bat azaldu zuen
egueneko saioan: ‘Marea gora’ hi-
tzaldi-saioa. “Izen hori jarri dio-
gu. Izan ere, mareak gora egiten
duenean hondarra mugitzen du
eta ura uhertu egiten da. Orduan,

jendea hondartzatik joaten da, he-
rrigunera adibidez. Guk hori nahi
dugu, jendea herrira joan dadila
hitzaldiak entzutera”, azaldu zuen
Egañak.

Hitzaldiak uztaileko eguaztene-
tan egiteko asmoa dute, 19:00etan,
Debako Kultur Elkartearen, eta
saioak guztiz itxita ez dauden
arren, euren proposamena azal-
du zuen Joxean Egañak. Hilaren
5ean, Maria Intxaustegi itsaspeko
arkeologo eta itsas-historialariak
(besteak beste), ‘XXI. mendeko
esploratzaile baten bizimodua’ ize-
neko hitzaldia eskainiko du; 12an,
Mikel Ayestaran kazetaria ekarri
nahi dute; 19an, Ibai Inziarte in-
geniari eibartarrak adimen arti-
fizialari buruz jardungo du; eta
26an, Pako Salegi Debako zentral
nuklearraren aurkako borrokako
militanteak gai horren inguruan
egingo du berba.

**Aurtengo ikasturtean
26 lagunek hartu dute
parte, 20 emakumek
eta sei gizonek**

**Atseginez ikasten
denean adinak
garrantzirik ez duela
ikusi dute**

Jubilazioaren biziberritzea mintzagai

Amañako pasealekuak askorako ematen du, batez ere egunero zure ibilbide egin eta bertan kuadrila osatzeraino heltzen bazara. Juan Sanchez Vallejo psikiatrak, jubilatzearekin batera, liburu egile prolificoagoa bihurtu zaigun honetan bere azkena kaleratu berri du, "Jubilación... ¿nueva vida" izenburukoa, eta martitzenean aurkeztu zuen Portalean. Orrialde horietan Amañako pasealekuaren bueltan jasotakoak gerturatzten dizkigu.



Liburu-aurkezpenean, egilea Miguel Arroita Jauregi eta Jesus Arizabaletaren artean.

Azken aldiak kaleratutako liburu bideren bidetik argitaratu du berria ere Sanchez Vallejok, Atlantis editorialaren eskutik. Gaur egungo jubilazioaren inguruan dihardu egilea idatzitako lerroetan, batez ere arlo soziologiko eta psikologikotik helduta. Horretarako, "arrazoi politiko eta ekonomikoei" erreparatu die Juanek eta bere eguneroko pasean egindako lagunek eskainitako laguntzaz "aprobetxatu" da. Jubilatzearekin batera, bakoitzak aldaketa garrantzitsuak izaten dituela sinestuta, aldi berean uste du horrelako koiunturan onurek pisu gehiago dutela arazoek baino. Hala ere, "badira, gutxiengoa besterik osatzen ez badute ere, denbora eder horri probetxurik ateratzea kostatzen zaienak".

Bestalde, "onartu edo ez, egia ere bada gehienok jubilazioa zahartzaroaren sarbidetzat dugula. Hori horrela ez bada ere, gure inkontziente kolektiboan oso barneratua dugu", dio egileak. Egoera berrira egokitzea eskatzen du horrek, baina baditu bere zailtasunak: "Erretiroa ere deitzen zaio, horrek esan nahi

duenarekin. Ez baduzu zure burua gizartearen bete ditzakezun bestelako funtzioetarako gaitzat hartzen, horrek zugar hastasun existentziala sortu dezake". Jakin egin behar da egoera berrira egokitzen eta, liburuan Vallejok prestatutako galdeketa-sortari erantzun dieten artean, argi dago jubilazioaren arlo positiboak gailentzen direla.

Galdeketa-sortari erantzuten

Psikologikoki zelan eragin dizu jubilatzeak? Modu onean egokitu zarela uste duzu? Zer da zuretzat hainbes denbora libre izatea? Zelan aprobetxatzen duzu denbora hori? Zoriontsu zara bizitza berri horretan? Zenuen lana faltan botatzen duzu? Nagusi ikusten zara jubilatuta

Egilearen ustetan "gizartearentzat baliagarri izan eta baloratua sentitzea bazalakorik ez dago"



zarelako? Horrelako galderak planteatu dizkie Juan Sanchez Vallejok liburuaren egiten lagundu dieten "akuiei". Eta hilberri den Antonio Gala idazlearen esaldi bat erabili du horren inguruan hausnartu deitzen: "Bizitza gaur da; aurrekoa modu bat besterik ez zen, ona edo txarra, honaino heltzeko".

"La vejez", "¡iVivir!!" eta "Efectos colaterales de la pandemia" izan dira Juan Sanchez Vallejok azken aldiak argitaratutako liburuak.



MODA
ETA
EDERTASUNA

2023/06/02

2021/05/12

Gozatu modarekin!!!

Estilo gotikoa

Versacek, besteak beste, estilo gotikoaren aldeko apustua egiten du bere bildumetako protagonista gisa. Joera hori zure eguneroko looketara egokitu nahi baduzu, kolore beltzeko soinekoak erabili ditzakezu.

Oversize jaka amerikarra

Hainbat denboraldi daramatza joeren artean eta, itxura guztien arabera, denboraz kanpoko jantzi bihurtuko da.

Gona luzeak

Gona luzea denboraldi honetako jantzietako bat da. Satinatuak, bakeroak, irekiduradunak edo jariakorrak, denek dute lekua gure armairuan.



Arropa lentzeroak

Soineko lentzeroak dira beste denboraldi batez ospakizun eta aukera berezietako protagonistak. Hala ere, eguneroko looketan ere ikusiko ditugu, jantzi informalagoekin konbinatuta.

Jeans higuak

Bakeroak gero eta nasaiago eta higuago eramaten dira. Zalantzarik gabe, look lasai, eroso eta informala lortu nahi da.



Kolore berdea

2023ko kolore protagonisten artean, arrosa eta laranja nabarmentzen dira, nahiz eta moda sinadurek berdearen aldeko apustua egiten duten udako izar gisa.

Estilo militarra

Gabardinak, gonak eta poltsiko asko. Zalantzarik gabe, kaki kolorea izango da eguraldi ona iristen denean arrakasta handia izango duen beste bat.

CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

UltraLift HIFU
Intentsitate handiko ultrasoinu fokalizatua

LIFTING KIRURGIKOAREN BENETAKO alternatiba

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITISAren ERAGINKORRA DEN TEKNOLOGIA BAKARRA

ZONALDEAK
Isterrak / ipur-mesailak
besoak / sabelaldeak

Azalarren ELASTIKOTASUNA hobetzen

943 821 577
Zuloagatarren, 1

GRATZINA



CASTAÑO Ilepaindegia

Ileorde, luzapen eta ile-protesietan espezialistak

Helbidea: Calbeton 1 - 1 ezk. **Telefonoa:** 943 20 70 47

Emaila: castanopeluqueria@gmail.com **Facebook:** Castaño Peluqueros **Instagram:** castanopeluqueros

Gure taldea ileordeak, ile-protesiak eta ile-luzapenak jartzen eta mantentzen espezializatuta dago. Zerbitzu erabat pertsonalizatua eskaintzen dugu. Esperientzia handia dugu eta prozesu osoan zehar gidatuko zaitugu, pieza aukeratzetik hasi eta mantentzera, zaintzera eta jartzera arte.

Badakigu zein zaila izan daitekeen pieza egokia aukeratzea. Ez kezkatu. Guk bide osoan lagunduko dizugu ahalik eta samurtasun eta diskrezio handienarekin.

www.castañopeluqueria.com




- Zure kasuaren azterketa pertsonalizatua egiten dugu
- Zure look-arentzat aproposena den pieza aukeratzeko lagunduko dizugu
- Zure ileordea jarri eta mantentze-lanez arduratzen gara
- Diskrezio osoz lan egiten dugu
- Edozein zalantza argituko dizugu





Ilearen koloreak azken garaiotan baino protagonismo handiagoa hartzen du. Txokolate tonuak gailentzen dira, beige edo urre koloreko erreflexu argiekin.

Ile-eranskingintza ile-protesi desberdinak sortzen dituen ile-apaindegiaren adar bat da, helburu desberdinekin: ilerik eza estaltzea, irudia aldatzea edo pertsonaiak ezaugarritzea. Aprobetxatu produktu horietan dagoen aukera zabala.



Azazkalak motz datoz eta manikura frantsesak nagusituko dira, zalantzarik gabe, baina ukitu distiratsuekin edo koloreen nahasketarekin, magenta kasu: tonalitate bizi, distiratsu eta deigarri hau protagonista izango da, zalantza barik.



Bizarrak askoz laburragoak eta degradatuagoak izango dira alboetan, eta bibotea eramaten jarraituko da.

Makillajeak tonu bakarrean datoz, leun eta mamitsu, begi oso biziak, kolore bakar batean edo antzeko koloreetan. Ezpaintedzako oso kolore leunak.

Dentsitatea daukaten bekainek joera izaten jarraitzen dute. Bekain mota horiek gaztetasunaren sinonimo dira, baina ezin dugu ahaztu leunduta eta konponduta eraman behar direla; baina ez gehiegi, gazteen informaltasun puntu horri eusten jarraitzeko.



Ileari dagokionez, gizonezkoentzat amaitu dira muturreko degradatuak. Alboetan ebaketa luzeagoak ikusiko ditugu.



SOUL
estilistak

Errebal, 20
www.peluqueriasoul.com
943 567 232



LURA
CENTRO DE BELLAS
685 785 664
lura.es
Teñitza delia 7

Laguinda

-JANTZIDENDA-

Bidebarrieta, 18
943 20 84 41



Eibarko berbalagunak Mintza Egunean izan dira asteburuan

Donostian ospatu da aurten Mintza Eguna, Euskal Herri osoko berbalagunak elkartzen dituen eguna, eta Eibartik ere berbalagun-talde eder bat abiatu zen zapatuan Donostia-rra. Jai-giroak lagunduta ekin zioten goizean goizetik egitarau beteari: ongi etorria eta hamaiketakoa egin ostean ibilbide bertsotua egin zuten batzuek Beñat Gaztelumendi bertsolariak lagunduta, Alde Zaharretik, eta mintzodromoan hartu zuten parte beste batzuk San Telmo Museoko elizan. Bapo bazkaldu zuten Trinitate plazan eta, kanta eta erromeriarekin gozatu ondoren,

pozarren bueltatu ziren Eibarrera. Aukera polita izaten da egun hori herri ezberdinetako berbalagunak elkar ezagutzeko eta esperientziak partekatzeko.

Aurten 30 urte betetzen dira Euskal Herrian lehen mintzapraktika-egitasmoa martxan jarri zenetik. Donostiako Bagera euskara elkar-tea izan zen lehen pauso hura eman zuena, gerora hainbesteko mugimendua ekarri duen pausoa. Izan ere, haren atzetik etorri ziren egitasmo ugari, eta gaur egun 7.000 lagunetik gora elkartzen dira astero-astero euskara praktikatzeko.

Eibarren ere oso errotuta dagoen egitasmoa da eta dozenaka berbalagun biltzen dira mintzapraktika egitasmoaren bueltan, izan euskara praktikatzeko taldeetan, izan familiarizat sortutako aldaeran, izan euskeraz primeran! egitasmoaren bueltan edo izan harrera eta elkarbizitarako Ongietorri programan. Laster amaituko dute ikasturtea, modu ezin hobean egin ere: Elgoibarko Lizagasar sagartokira abiatuko dira ekaina erdialdean bertako produktuak dastatu eta hango antolaketa bertatik bertara ezagutzeko.

Kalean da maiatzeko Txikitto!, ikasturteko azkenaurreko hilabetekaria

Ikasturteko azkenaurreko Txikitto! banatu du aste honetan ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta, ohiturari jarraituz, Ipurterre Ipuin Lehiaketak betetzen du tarterik zabalena, bost irabazleen ipuinak irakurtzeko aukera eskaintzen digu-eta. Baina Ipurterreko ipuinez gain, eskulanez eta errezetek ere badute lekua maiatzeko alean, liburu-proposamenen eta bitxikerien atalarekin batera. Ekaineko alearekin esango dio agur ikasturteari LH 1. eta 6. mailen arteko ikasleek eskolan jasotzen duten Txikitto! hilabetekariak.



“Stai Zittori agur esateko momentu aproposa dela pentsatu dugu, lagun bezala”

XABIER MARTIN • Stai Zitto



Bere sorreraren 10. urteurrenean, Stai Zittok agur esango digu. Berez Ermuan sortu baina Eibarko kideak dituen rock eta ska banda isildu egingo da (stai zittoren esanahia ‘ixo’ da italieraz), baina zerbait berezia prestatu dute agur esateko. Horrela, bihar, iluntzean, Ermuko plazan, azken kontzertua eskainiko dute. Zalantza barik, berezia izango da eta Orihen taldea gonbidatu dute giroa berotzeko.

BIDEOA



Ermuan jaio baina Eibarren bizi den Xabier Martinek 16 urte besterik ez zituen Stai Zittok bere bidea hasi zuenean. Esan daiteke, beraz, taldearen barruan heldu dela, eta orain agur esateko ordua iritsi zaio. Malkoei eutsiko dion zalantzak ditu Martinek, baina gogotsu dago biharko saioaren aurrean.

Nolako giroa bizi da taldean biharko kontzertuaren aurretik?

Pixka bat urduri gaude. Egia esateko, taldearen azken kontzertua izango da eta, 10 urteren ondoren, alde batetik pixka bat tristea da, baina bestetik poza sentitzen dugu jende aurrean prestatu duguna eskaintzeko eta kontzertua emateko aukera dugulako. Gainera, uste dugu jendeak horrelako zerbait behar duela. Izan ere, COVID-a tarteko, orain dela lau urte inguru ez dugu zuzenekorik jo. Beraz, gogotsu gaude, baina triste aldi berean.

Zergatik hartu duzue Stai Zittoren jarduna amaitzeko erabakia?

Bederatzi lagunek osatzen dugu taldea, asko gara, gero eta nagusiagoak, eta bakoitzak bere bizitza du orain (lana, bidaiak...). Azkenean, ikusi dugu hobe

dela momentu onean lagatzea, lagunak bezala. Eta, gainera, biharko kontzertuarekin bada, askoz hobeto. Bakoitzak bere bidea egiten jarraituko du orain, taldekideok beste proiektu batzuetan baikabiltza. Beraz, Stai Zittori agur esateko momentu aproposa dela pentsatu dugu.

Momentu ona dela aipatu duzu eta, hain zuzen ere, martxoaren amaieran azken abestia aurkeztu zenuen ‘Errua’ izenburuarekin. Agur esateko abestia da?

Abestia hor geneukan eta ezin zen errekamaran gelditu, kaleratu egin behar genuen. Gainera, gure iritziz, egin dugun abestirik onena da agian. Oso polita da eta egoera honetaz egiten du berba hain zuzen ere. Hau da, erruaz, doluaz.

Errua sentitzen duzue taldea lagatzeagatik?

Ez. Bizitzak alde eta bide asko ditu eta bakoitza bere bidetik joan behar da. Hori zuretzat ona bada, hortik jarraitu beharko duzu. Poztasuna eta tristura alde berean daude, eta horregatik esaten dugu hori.

Beraz, abesti hau zuzenean entzuteko aukera bakarra izango da biharko kontzertua, ezta?

Aurrekoan hori bera pentsatu genuen entseatzen genuen bitartean: “Bat eta azkena”. Alde batetik, pena ematen digu abestia gehiago ez esplotatzea edo jen-



Xabier Martin eta Gorka Martinez de Lagos dira Stai Zitto taldeko bi eibartarrak. EKHIBELAR

deak entzuteko aukera gehiago ez edukitzea, baina tira, polita izango da biharkoan entzuteko aukera izango dutenentzat.

Hamar urte atzera eginez gero, nola gogoratzen dituzu Stai Zittoren hasierako momentu horiek?

Sasoi horretan 16 urte nituen eta, hain gazte, musika-estudio profesional batera joan ginen. Flipatzen nengoen. Taldekide guztiak ginen oso gazteak eta estudiora joan ginenean hau zen sentsazioa: “Zuek zer egiten duzue hemen?”. Oso polita izan da, urte gutxitan gauza asko bizi izan ditugulako: Maketa Lehiaketa, bi disko, bi bideoklip, hiru estudio-profesionaletan ibili gara... Azkenean, oso bide polita izan da. Nire aldetik, bizitzaren parte izan da hau guztia eta izaten jarraituko du.

Sorreran oso gazteak zineten, gogo handiarekin seguru, baina horrelako ibilbidea egingo zenutela imajinatzen zenuen?

Hori ez. Iaz taldea lagatzea erabaki arte, inoiz ez nuen pentsatu taldeak bere bidea etengo zuenik. Beti aurrera egiten jarraitu dugu, abestiak egiten, kontzertuak prestatzen, eta abar. Beraz, inoiz ez duzu pentsatzen

“Batetik pixka bat tristea da, baina bestetik poza sentitzen dugu jende aurrean prestatu duguna eskaintzeko eta kontzertua emateko aukera dugulako”

amaituko denik. Hala ere, beti dakizu hori gertatu daitekeela, hau da, amaitzea.

Nolakoa izan da bidea? Gorabeherak izan dituzue?

Hasieran oso gazteak ginela nabaritzen dugu, orain gauzak beste modu batean hartuko genituela ikusten dugulako. Era berean, hori horrela izatea ona izan zen, gaztea izanda beste gauza batzuk egiten dituzulako, nagusiagoa izanik egiten ez dituzun gauzak. Stai Zitto familia izan da guretzat. Denetik pasatu ahal da. Egun baten ondo zaude batekin, bestearekin ez, baina betidanik ezagutzen dugu elkar, eta momentu



Stai Zitto taldeko kideak. STAI ZITTO

onak eta txarrak bizi izan ditugu, toki guztietan gertatzen den bezala. Orokorrean demaseko esperientzia izan da. Beti ibili gara barrezka, ondo pasatzen, eta momentu txarrak, izatekotan, oso gutxi izan dira. **Urte hauetan bizi izan duzun zerbait aukeratzekotan, zein hautatuko zenuke?**

Maketa Lehiaketarekin edo justu horren ondoren egin zen Vertigo Rock jaialdiarekin geratuko nintzateke. Baina zaila da momentu batekin bakarrik geratzea. Izan ere, La Pegatina taldearen aurretik jo dugu eta oso kontzertu polita eman genuen, baita Talco taldearen aurretik ere Galdakaon... Esperientzia ezberdinak dira.

Beste talde batzuei buruz berbetan, bihar Orihen izango duzue lagun agur esateko.

Lagunak dira eta eurekin partekatu nahi genuen horrelako momentu berezia.


Nolako ikuskizuna eskainiko duzue bihar?

Ea jotzeko gai garen, denok negarrez hasiko garela uste dudalako. Pentsatzen dut oso kontzertu berezia izango dela. Momentu bereziak izango ditu, sorpresek, eta inoiz joko dugun luzeena izango dela uste dugu.

“Errua', agian, gure abestirik onena da. Ezin genuen errekamaran laga”

Arlo musikalaria begira, hamar urte hauetan taldean garapena edo aldaketa egon dela uste duzu?

Azken abestiarekin ikusi da eboluzioa egon dela hasierako abestiekin alderatuz gero. Abestiak egiteko moduak ere aldatu egin ditugula ikusi dugu. Bestetik, taldeko kideek beste toki batzuetan jotzen dugu, bandetan, txarantetan eta abar, eta esperientziarekin beti hobetzen duzu. Ez da harro jartzeagatik, baina taldean oso musikari onak daude eta nabaritzen da. Baina hori hasieran ere horrela zen, bestela ez ginateke heldu garen tokira iritsiko.



Superficie ezberdinen arteko jokoak. BAKARNEELEJALDE

Olivia Beril kanadarrak Eibar Hiria Sari Nagusia eskuratu zuen bigarrenez jarraian

Aurreko domekan jokatu tako emakumezkoen UCI mailako lasterketan UAE taldeko Olivia Beril kanadarrak iaz lortutako garaipena berretsi zuen. 25 urteko txirrindulariak aurrea hartu zien Movistarreko Sheyla Gutierrez eta Yulia Biriukova bere taldekideari T. Etxebarrian jokatu tako esprintean. Euren atzetik sailkatu ziren Colombia taldeko Jessenia Meneses eta Saint Rochelais taldeko Natalie Grinczen. Lasterketako azken mendatea jaisten, San Mi-



guel atzean lagata, Caja Laboraleko Silvestrik segundo batzuk hartu zituen, baina Eibarrera heldu aurretik harrapatu zuten. Hamargarren postuan sailkatu zen Usoa Ostolaza zarauztarra bere taldekidea, San Migueletik jaisterakoan errepide-tik irten eta erori ondoren.

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako proba hori arrakastatsua izan zen beste behin, eguraldia ere lagun izan baitzuen. Klubaren denboraldi honetako azken proba geratzen da jokatzeko, ekainaren 18an egingo duten jubencil mailako 87. San Juan Sari Nagusia.

Deportiboko atletek sarekada domina irabazi dute Gipuzkoakoetan

Donostiako miniestadioan jokatu tako probintziako absolutu mailetako txapelketetan, Klub Deportiboko atletek zortzi domina irabazi zituz-

ten: urrezko lau, hiru zilarrezko eta brontzezko bat. Imanol Egidazuk 110 metroko eta hesietako 400 metrokoa bereganatu zituen eta Gara-

Magunazelaia eta Mikel Martinez xabalinarekin nagusitu ziren. Egidazuk zilarrezkoa irabazi zuen baita 400 metrokoan, eta metal bereko domina irabazi zuten Kepa Marquezek 100 metroan eta Carlitou Mendik xabalinarekin. Brontzezkoa Elene Arrazolarentzat izan zen 100 metroko lasterketan.

Donostian ere, eta 16, 18 eta 20 urte azpiko Gipuzkoako txapelketetan, Deporrekoe maila erakutsi zuten. Horrela, Imanol Egidazuk bere bidetik jarraitu zuen eta 20 urte azpikoetan bi urrezko dominekin itzuli zen, 110 metro hesietan eta 100 metroan eskuratutakoak, eta maila bereko disko jaurtiketan Kepa Marquez nagusitu zen. Eta urrezko beste bat lortu zuen 16 urte azpikoetan Elene Arrazolak 100 metrokoan.



Garao, Kepa, Nora eta Imanol atletak, Inma eta eta Iñigo prestatzaileekin.



Eibar FT-k zapatuan ekingo dio 1. Mailara igoyerako promozioari

Eta, gauzak ondo bidean, azkeanean igotzekotan ekainaren 17ra arte itxaron beharko genuke. Liga amaierak erakutsi duen sailkapenari jarraituz, igoyerako lehenengo kanporaketan derbia izango dugu, Alaves eta Eibarren artekoa. Joaneko partidua bihar jokatu da Ipuruan, 18:30ean hasita, eta itzulerakoa Gasteizen datorren asteko eguenean, hilaren 8an, 21:00etatik aurrera. Hortik aurrera egiten duenak Albacete eta Levantaren artekoan aurrera egiten duena izango

du aurkari azken kanporaketan. Fase horretako partiduak ekainaren 11n (domeka) eta 17an (zapatua) jokatu dira, egun bietan 21:00etan. Aipatutako kanporaketetan berdinketarik balego, ligan hobeto sailkatutakoak egingo du aurrera, ez da eta hori erabakitzeko penaltirik izango. Eibar eta Alavesen artekoan, beraz, arabarrek izango dute abantaila hori; beste neurketan Levantek izango duen abantaila bera.

Bestalde, Eibarreko abonatuak 5 euroko sarrerak erosi ahal izango

dituzte, zuzendaritzak abonatuaren fideltasuna saritzeko neurri hori hartu baitu; eta bakoitzak sarrera gehigarri bat erosi ahal izango du. Gainera, Ipurua zaletuez bete dadin, klubak eserlekuen liberazioa aktibatuko du, Ipurua joaterik ez duten abonatuaren sarrerak salgai jarri ahal izateko. Eserlekua askatzeke aukera egongo da eskuragarri webgunean, partidua hasi baino bi ordu lehenago arte. Salduz gero, zenbatekoaren %100 itzuliko zaio abonatu titularrari.

Mecalbe Eibar Eskubaloiak Gipuzkoako Koparen finala jokatu du

Bere A multzoko hiru partiduak irabazita, Mecalbe Eibarko emakumezkoen lehen taldeak Gipuz-

koako Koparen finala jokatu du, eta Elgoibarko Gaurve Asesores izango du aurrean final horretan.



Eibar Eskubaloiko talde askok egin dituzte meritua denboraldi honetan.

Andoni Perezek prestatzen duen taldea 23-33 nagusitu zen Leizaran Lanbroa Tabernaren aurka Andoainen jokatuako ligaxkakako azken jardunaldian. Beste multzoan, B izenekoan, elgoibartarrek Bera Berarekin lehia berdindu eta gero, bi taldeek sartutako golen arteko aldeak elgoibartarrei eman zien txartela. Liga txapelketan, Mecalbek mailari eusten zion bitartean hori ez zen izan elgoibartarren kasua, eta azken horiek maila galdu dute. Parekotasunik izan badaiteke ere, eibartarrak faborito dira.

Unben jokaturako Erreginaren Kopako fasea Eibar Rugbyrentzat

Eibar Rugby Taldeak indartsu dihardu denboraldi amaiera honetan eta, horrela, aurreko asteburuan gurean jokaturako GPS 7 Erreginaren Kopako bigarren fasea irabazi zuen, finalean Majadahondari 10-5 irabazita. Kopako bigarren jardunaldia jokatu eta gero, eibartarrak bigarren dira sailkapenean, 32 punturekin, Majadahonda liderrengandik bi puntura. Koparen VI. edizioa Madrilen erabakiko da ekainaren 10 eta 11ko asteburuan. Eibar Rugbykoek, finala jokatu aurretik, Sant Cugat 17-5 irabazi zioten final laurdenetan eta Rugby Turiari 14-12 finalerdietan. Horrez gain, Amaiur Mayo eibartarrak jokalaria onenaren saria irabazi zuen.

Madrilgo Complutense Estadio Nacionalean jokaturako den jardunaldiari begira astelehenean zoz-



Asteburua ondo borobildu zuten Patricia Guntinen neskek, etxean irabazita.

ketaturako fase finalerako hiru multzoak honela geratu dira, Eibar Rugby, Majadahonda eta Complutense Cisneros taldeburu direla: Eibarrekin, XV Hortaleza, ADI In-

dustriales eta CR Sant Cugat; Majadahondarekin, Turia, Universidad de Sevilla eta Olimpico Pozuelo; eta Cisnerosekin, CRAT, Jabatas Mostoles eta Sanse Scrum.

Bost domina Kalamuakoentzat alebin mailako Gipuzkoako txapelketetan

Aurreko zapatuan Erreterian jokaturako probintziako alebin mailako judo txapelketan, gure herriko Kalamua klubeko lau ordezkariak domina irabazi zuten: Andoni Urrak eta June Valladaresk urrezkoa bereganatu zuten, Aner Gonzalezek zilarrezkoa eta lehiaketa ofizial batean debutatu zuen Sara Azpiazuk brontzezkoa. Hurrengo egunean, domekan, maila bereko Gipuzkoako Kopa izan zen jokoan eta, aurreko faseetan bertan parte hartzeko txartela eskuratu zuen Julen Martinek bikain amaitu zuen lehiaketa, urrezkoa irabaziz. Hegoi Estebanek prestatutako judoek gazte-gaztetatik dihardute euren progresioa erakusten.



Bihar jokaturako dira foball-zaletuko Kopako finalerdiak

Aurten ligaxka modalitatean jokaturako Kopa torneoko lehen fasea amaitu zen aurreko asteburuan eta hortik bi multzoetako lehenengo bi postuetan sailkatutako taldeek jokaturako dituzte finalerdiak, euren artean gurutzatuta. Bihar jokaturako dira bi partidu horiek, Unbeko beheko zelaian, eta honako aurrez-aurrekoak izango dira txartela eskuratu duten taldeen artean: goizeko 09:00etan Feredu Bar EzDok eta Garajes Garcia izango dira, nor baino nor; eta jarraian, 10:30ean hasita, Adahi Eraieder-ek eta Bar Txoko Ligako irabazleak neurtuko dituzte indarrak.

Astelenako boxeoa jaialdia Sanjuanak baino bi aste lehenago egingo da

Datorren asteko barixakuan, hilaren 9an, egingo da Sanjuanetako ohiko boxeoa jaialdia. Ekitaldia gaueko 22:30ean hasiko da eta, azken urteetakoari jarraituz, amateur mailako boxeoarekin batera sanda profesionalak ere bere tokia izango du. Gure herriko Tatt gimnasioko Aitor "Guda" eibartarrak (*argaskian*) hartuko du parte, 66 kilorainoko pisuan, Burgos Boxing-eko Adrian de Lis Santosen aurkako borrokan. Boxeo atalean beste borroka hauek

izango dira: 54 kilora arte, Dorleta Zubeldia (Gimnasio Gasteiz) vs Oibar Artetxe (Bilboboxing); 75 kilora arte, Kevin Saavedra (Gimnasio Gasteiz Sport) vs Alison Gomez (Bilboboxing); 63 kilora arte, Busseif (Gimnasio Gasteiz Sport) vs Jose Perez (Bilboboxing); eta 89 kilora arte, Ibai Aratzamendi (Gimnasio Gasteiz Sport) vs Cristian Bola (Bilboboxing). Sarrerak 15 eurotan daude, aulkietarako kasuan, eta 12 eurotan gradetan tokia hartuz gero.



Eibar Igerixaneko bi ordezkari hartu dute parte Euskadiko Eskola Jokoetan



Aurreko zapatuan Ordiziako Majori kiroldegian jokaturako Euskadiko Eskola Jokoetan Eibar Igerixaneko Itsaso Castrillo eta Jon Guinea izan ziren parte hartzen, maila ona erakutsiz gainera. Horrela, 2012an jaiotako Castrillok urrezko domina irabazi zuen 200 estiloetan (2.53.75) eta brontzezkoa 100 libretan (1.07.75). 2010ean jaiotako Jon Guineak 400 estiloetakoan hartu zuen parte.

Arima Galduak laugarren Madrilen

Madrilgo Arroyomolinos herrian jokaturako zirkuitu horretako hirugarren eta azken jardunaldian, gure herriko jugger taldea laugarren sailkatu zen hamalagarren talderen artean. Hori bai, Arima Galduak-ek hiru baja izan zituen, beste talde batzuetatik etorritakoek estali zituztenak. Hainbat zaparrada ere jasan behar izan zituzten bost puntuetara jokaturako set-etan.

Urbatek garaipen argia eskuratu zuen Mallorcaren aurrean

Leioako Askartzan igerilekuan bildutako gure herriko zaletu askoren aurrean, Urbat-Urkoetnik-ek 24-10 irabazi zion Conectabalearen Mallorcari gizonetako 2. Maila Nazionalerako igoera faseko finalaren joaneko partiduan. Eibartarrek betetako Askartzan jokaturako partidua hiru fase izan zituen: lehen laurdenean Urbat bikain batek 8-1 jo zuen aurrera, hurrengo bi zatietan Mallorcak talde bikaina duela



erakutsi zuen eta Orbeako taldea estu hartzeko gauza izan zen, azkenean eibartarrek berriro aurrera egin eta 14 puntuko aldea eskura-

tzeko. Domekan, 11:30etik aurrera, eibartarrek 2. Mailara igotzeko azken ginga jartzera aterako dira itzulerako partiduan.



Hilabete osoa beteko duen sanjuanetako programa aurkeztu dute

Azaldutakoaren arabera, programatutako jardueretan eskaintza zabala egongo da: kontzertuak, kale antzerkia, dantza emanaldiak, kirol-jarduerak eta haur zein gazteenzako ikuskizunak, besteak beste. “Tradizioak eta apustu berritzaileek osatzen dute programa eta, beste behin ere, Eibarko elkarte eta kolektiboen parte-hartzeari eta inplikazioari zor diegu. Izan ere, talde horiek egiten duten lanari esker, askotariko jarduerak egin ahal izan dira”. Jai-egitaraua prestatzen lagundu duten elkarte, talde eta kluberen artean, besteak beste, hauek daude: Eibarko Txirindularitza Elkartea, Eibarko Klub Deportiboa, ...eta kitto! Euskara Elkartea, Kezka Dantza Taldea, Ipuruako Gimnasia Erritmika Kluba, Jaixak Herrixak Herrixandako eta Odisea.

Nabarmendu dutenez, jaietarako aurrekontua igo egin dute,

300.000 eurotik 380.000 eurora, “herritarrei programazio bete-betea eta askotarikoa eskaintzeko”. Aurtengo omenduak, bestalde, Eibar Kirol Elkarteko emakumezkoen taldea, Hodei Ezpeleta aizkolaria, Lorea Urkia Miss Grand Euskadi, Jose Perez “El Tigre” boxeolaria eta Aitor Montero motozalea izango dira.

Kartel eta pegatina irabazleak

Egitarauarekin batera eman zuten ezagutzera aurtengo jaiak iragarriko dituen kartela: Alfredo Leon Mañuren “Tradición” izenburuko lanak irabazi du Kultura sailaren lehiaketa, sua irudikatzen duen irudiarekin. Horrez gain, Lennon Franco Martinez eta Maialen Casero Topalvarez saritu dituzte haur eta gaztetxoaren mailetan. Eta jaietan larregi ez edateko mezua umorez zabaltzeko pegatina lehiaketa

Aste honetan aurkeztu dute 2023ko sanjuanetako programazioa Jon Iraola jarduneko alkateak, Patxi Lejardi Kultura eta Jaietako jarduneko zinegotziak eta Asier Lopez de Viñaspre teknikariak.

Beste urte batzuetan bezala, San Juan jaietako ekitaldi nagusiak ekainaren 23tik 25era bitartean izango dira aurten ere, baina hilabete osoan zehar izango dugu jaietarako girotzen joateko aukera, asmo horrekin antolatuta diren jarduerari esker.

Aurkezpenaren bideoa gure YouTube kanalean



Marta Marina Larrañaga eibartarrak irabazi du.

Eibar Kantuan musika jaialdia

Aurkezpenean aurreratutakoaren arabera, Eibar Kantuan jaialdia ere egingo da, ekainaren 10ean, 22:00etan, Astelena frontoian. Beti oso harrera ona izaten duen jaialdiari buruzko xehetasunak datozen egunotan emango dituzte, baina joateko interesa dutenei sarreraren salmenta gaur arratsaldean bertan hasiko dela jakinarazi nahi diete, Coliseoko leihatilan zein Kutxabank-en (5 euro). Horrekin batera, urtero egiten den San Juanetako Marmitako Txapelketarako izen-ematea ere asteburu honetan hasiko dela adierazi dute. Eta gazteen koadrilei Udalak ematen dizkien diru-laguntzak eskatzeko epea, berriz, hilaren 9an amaituko da.



150 ikasleren marrazki, pintura eta zeramika-lanak ikus daitezke Portalean

Atzo zabaldu zuten Dibujo eta Zeramika Udal Eskoletako ikasleen erakusketa, Portalean. Ikasurtearen amaierarekin bat prestatu duten erakusketan ikasleek kurtsoan zehar sortu dituzten artelanak bildu dituzte, eibartar guztiei erakusteko. Leire Kareaga eta Iratxe Unanurekin marrazketa eta pintura ikasten duten 100 bat ikasleren lanekin batera, zeramika eskolan Natalie Hickeyrekin ari diren beste 50 ikasleren piezak daude ikusgai. Hilaren 20ra arte joan daiteke ikustera.



Lenoir & MICE-n kontzertua bihar Zai-Zoi tabernan

Biharko kontzertua antolatu dute Bittor Sarasketa kaleko Zai-Zoi tabernan. Iluntzeko 20:00etan hasiko da Lenoir & MICE musikarien zuzeneko saioa. Joseba Baleztena abeslari eta gitarristaren bakarkako izen artistikoa da Joseba B. Lenoir. Sixty Sexers taldearekin ez ezik, Sumision City Blues, Izaki Gardenak, Mugaldekoak, Willis Drummond eta beste hainbatekin aritu izan da, baita bakarka ere. Eta MICE Miren Narbaiza eibartarraren bakarkako proiektua da.



Udako ikastaro trinkoetarako izen-ematea zabalik dago

AEK euskaltegian uda honetarako euskara ikastaro trinkoak antolatu dituzte. Uztailean izango dira, goizez, eta guztira 80 orduko iraupena izango dute (taldea sortuko balitz, ekainean eta irailean ere emango dira). Hasiera mailako ikastaroak eta B1, B2 eta C1 mailakoak eskainiko dituzte. Euskaltegitik adierazi dutenez, “azken horietan, azterketa prestatzeko aukera ere izango da eta azterketara joan nahi dutenek irakurmen eta entzumen proba euskaltegian bertan egin ahal izango dute”. Ikastaro presentziala izango da, eta atzotik dago izena emateko aukera, hilaren 29ra arte.

Ikastaro presentzialez gain, barnetegiak, udako ibiltariak mendiz mendi, on-line ikastaroak etab. ere egiteko aukera egongo da (uztailean, abuztuan, eta irailean). Informazio gehiago nahi duenak Eibarko AEK euskaltegian galdetu dezake (943201379). Bestalde, 2023-2024 ikasurterako aurrematrikula ere zabalik dago, ekainaren 28ra arte, “eta egiten dutenei %5eko deskontua egingo zaie matrikularen prezioan”.


HABEren azterketak prestatzeko ikastaroa Udal Euskaltegian

Udal Euskaltegiak HABEren azterketak prestatzeko udako ikastaro trinkoak antolatu du. Zehazki, B2 eta C1 mailako ikastaroa izango da, 100 ordukoa, eta ekainaren 26tik uztailearen 20ra bitartean eskainiko dute, 08:30etik 13:30era. Ekainaren 20ra arteko epea dago izena emateko. Informazio gehiagorako, 943700912 telefonora deitu edo euskaltegia@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	8				3	
9				6	2	5
	1		5	3		6
	4					7
		9		2		
7						9
8		4	6		3	
5	3	2				4
1						8




soluzioa

S
U
D
O
K
U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			8	9		
	7	2	3	9	1	8
				7	3	
7	1					
2	8				5	1
					6	3
		8	7			
5	3		8	6	2	7
		7	2			



soluzioa

AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ANAI-ARREBAK

Nire semeak hainbat
anai-arreba ditu: anai bezain
beste arreba. Arreba guztien
kasuan, neban kopuruak
ahizpena bikoizten du.

Zenbat seme-alaba ditut?

Aitak 10 urte ditu, 0 emakume

AITA ETA ALABAREN ADIN KONTUAK

Aita batek alabaren adina
lau aldiz biderkatzen du.
20 urte berri alaba horren
adinaren bikoitza izango du.

Zenbat urte dituzte orain
aitak eta alabak?

Aitak 10 urte ditu, 0 emakume

Ekainak 2/8

BARIXAKUA 2

ZINE-FORUMA

18:30 "Un amor de verano"
(Catherine Corsini). Sarrera
librea. Portalea.

DANTZA

19:30 Nele Dantza. Talde
ezberdinen emanaldiak.
3 euro. Coliseo.

ZAPATUA 3

EIBARKO ITZULIA


07:05 Mendi ibilaldia. Bi
ibilbide: 35 kilometrokoa
eta 18'6koa. Deporretik
abiatuta.

AZOKA

10:00/14:00 Udako
Bigarren Eskuko Azoka.
Umeendako tailerra:
"Bira ezazu zure ziba
planeta zaintzeko!".
Doan. Erreal Plaza.

URKIKO JAIK

11:00 X. Txiki-krosa.
Urki-Kurutzekua.
12:00 XXIII. Paella
lehiaketa. Nuevo taberna.
23:00 Kontzertua:
Capitan Mercury (Queen
taldeari tributoa).
Polonia Etxebarria.



DANTZA

19:30 Nele Dantza.
Talde ezberdinen
emanaldiak. 3 euro.
Coliseo.

MUSIKA

20:00 Lenoir & MICE.
Zai-Zoi taberna
(Bittor Sarasketa).



DOMEKA 4

ALTXORRAREN BILA

09:30 Mendian zehar,
Eibarko Baso Biziak-en
eskutik. Untzagatik
abiatuta.



ASTELEHENA 5

BIDEO-FORUMA

18:30/20:30 Emakumeak
historia egiten: Estibaliz
Urresola Solaguren. Sarrera
librea. Andretxea (Isasi, 11).



EGUAZTENA 7

AURKEZPENA

19:00 "Krutwigen Eibar
barrixa". Dokumental
biografikoaren proiektzioa,
mendeurrenko liburuaren
aurkezpena eta solasaldia.
Hizlariak: Manu Ertzilla
eta Oskar Arantzabal
(Krutwigen Lagunak).
Arrate Kultur Elkarte.

DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua.
20:00 Helduen entsegua.
Beistegi eraikina
(Bittor Sarasketa).

EGUENA 8

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola
ematera joateko saioa,
odol-emateentzat.
Untzaga jubilatutua etxea.

DANTZA

20:00 Biraka Dantza. Talde
ezberdinen emanaldiak.
3 euro. Coliseo.



ERAKUSKETAK

Ekainaren 20ra arte
ZERAMIKA ETA DIBUJO
UDAL ESKOLETAKO
IKASLEEN KURTZO AMAIERAKO
ERAKUSKETA
(Portalea)

Irailaren 1era arte
"TAILERRETIK BULEGORA.
EIBARKO PRODUKTUAK".
(Armagintzaren Museoa)

Eskualdeko Agenda

SORALUZE

2an (BARIXAKUA)

DANTZA

21:00 / Arane kiroldegia
"Birikaos", Biraka dantza
eskolarekin

ELGOIBAR

3an (ZAPATUA)

AZOKA

09:00/14:00 / Aita Agirre
Trinitateetako Azoka

DANBORRADA

23:00

Helduen Danborrada

4an (DOMEKA)

AZOKA

10:00/14:30 / Aita Agirre
Artisau Azoka

DANBORRADA

12:00

Haurren Danborrada

ERMUA

3an (ZAPATUA)

KONTZERTUA

21:00 / Orbe Kardinala
Stai Zitto eta Orihen

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

• **4an:** 20:00

“Las buenas compañías”
DRAMATIKOA



2023/Espainia /93'
Zuzendaria: Silvia Munt
Aktoreak: Alicia Falcó, Elena Tarrats, Itziar Ituño
Drama / Nerabezaroa

2 ARETOA

• **4an:** 17:00, 20:00
• **5ean:** 19:30 (1 Aretoa)

“Maestro(s)”
DRAMATIKOA



2022 /Frantzia /90'
Zuzendaria: Bruno Chiche
Aktoreak: Yvan Attal, Pierre Arditi, Miou-Miou
Familia / Musika ingurua

ANTZOKIA

• **4an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
• **5ean:** 19:30

“Rebel”
DRAMATIKOA



2022 / Belgika /135'
Zuzendaria: Adil el Arbi
Aktoreak: Aboubakr Bensaihi, Lubna Azabal, Amir el Arbi
Thriller-a / Akzioa

ANTZOKIA

• **20an:** 17:00
• **21ean:** 17:00

“La Sirenita”
ABENTURAZKOA



2023 / AEB /120'
Zuzendaria: Rob Marshall
Aktoreak: Halle Bailey, Javier Bardem / Melissa McCarthy
Fantastikoa / Musikala



Conchi Churruca Uzuriaga

2023/05/31



“Ez neri agurrik esan, gero arte baizik. Betirako gure bihotzean”

- ETXEOAK -



FUNEUSKADI
Funeraria



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria



TANATORIO HEMAYORRO EGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibariko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xerilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marquis de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leiza · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ANTON**. Gaur 8 urte betetzen dozuzelako. Musu eta besarkada pillua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **OIHAN**, eguaztenian 6 urte bete zenduazena eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, **JONE**, gaur 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MARKEL!** Bixar urtetxua beteko dozu-eta. Ez galdu irribarre hori. Patxo bat zure famelixaren partez!



Zorionak, **DAVID**, martitzenian urtiak bete zenduazena eta. Besarkada haundi bat maite zaittuen jendiaren partez.

ERRENTA AITORPENA? AURTEN ERE, DUDA BARIK

Autolikidazio proposamena onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.

Mekanizatua egiteko ordua hartzerakoan edo aitortpena egiterakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.

Internet bidez jaitsi errenta programaren euskarazko bertsioa, eta hobetsitako hizkuntza atalean aukeratu euskara.

Aholkularitzan esan euskaraz egin nahi duzula.

EUSKARAZ!!!

EIBARREN BAIETZ AURTEN 1.700!

Badakizu errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera duzula? Eta euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, zeinek egingo du ba?

Astindu ohiturak!

Eibarren
AKEBAI

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Legarre dorrean. 626719802.
- Pisua salgai Txaltxa Zelai kalean. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 5. pisua, igogailuarekin. 677592475. Joseba.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 604986450.
- Neska eibartarra eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia eta erreferentziak. 699473761.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako (etxeak, pegorak, bulegoak) eta nagusiak zaindu edo laguntzeko. 620757528. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez, ospitalean eta asteburuetan ere. 613073936.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 6110067042.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 663937822.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko etabar. 688805742.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631319476.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 625200924.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 608401590.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 667425331.

4.2. Langile bila

- Aho eta hortzetako higienista behar da. hortzklinika.06@gmail.com
- Administratibo komertziala behar da arratsaldez lan egiteko. Bidali curriculum-a: akomertziala@gmail.com
- Dendaria behar da Eibarko moda-denda batean. Jornada erdiz (goizez). Bidali curriculum-a: eibardenda@yahoo.com
- Pertsona behar daidazkari-lanak, errekaduak etabar egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com
- Bertiz kafetegi eta okindegi baterako titularrak behar dugu. Beharrezkoa: autonomoetan alta ematea eta euskeraz egitea. Lokal guztiz egokitu, eguneko ordutegia eta bermatutako onurak. 622370200. Yarighouse@gmail.com
- Fisioterapeuta (edo osasun arlokoa) behar da Eibarko klinika baterako. Curriculumak bidali: urreibar@hotmail.com

- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskerak

- Pertsona behar da DBH3ko Matematika eta Fisikako klaseak emateko irailetik aurrera gure etxean. 627307168. Naiara.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatearekin prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Ohe-artikulatu geriatrikoa salgai. Oso egoera onean. 667938638.



osasun gida

Kiromasajea

**Kiromasajea
Osteopatia**

Astelehenetik
ostirats: 08:00/20:00

613 07 03 92
arza.itsaso@gmail.com

ARZA
ITSASO ARZA

ARZA_kiromasaje.osteopatia
Santa Ana 12 -ELGORBAR-

Podologoak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**

838200124
kollegiatu zenbakia



T. Etxebarria, 5 - I. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mendrago Lili
GOMEZ ETA ARRASALDEZ

Urkizu. 13 - behea
tel. 943206823 / 686859023

Okulistikak

Recalde
Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

•Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 28410



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

ERDIKO KALE 54
**ARRASATE
943 799746**




PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776



Eibarko Musika Eskola
Escuela de Música J.B. Guisasola



EIBARKO MUSIKA ESKOLA

Instrumentuak Musika Taldeak
Koruak Musika Hizkuntza Musikoterapia
Musika eta Mugimendua (4-5-6)
Musika helduentzat

eta askoz gehiago:
4 urtetik aurrera, adin mugarik gabe!

Ezagutu gaitzazu hemen:

facebook.com/eibarkomusikaeskola
instagram.com/eibarkomusikaeskola
youtube.com/@eibarkomusikaeskola

Harremanetarako:

musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus
943702725